

Formazioko ikertzaileak: Behin betiko konponketaren alde

Aurreko [komunikatu batean](#) kritikatzeko gure formazioko ikertzaileen kontratuak abisatu gabe eta atzera eraginarekin aldatuak izan zirela estatuan eta UPV/EHUn. Atzo [CRUEk komunikatu batean](#) eskatu zuen formazioko ikertzaileen kontratuaren aplikatutako aldaketak tenporalki bertan behera uztea. LABek egoki ikusten du neurri hau eta kontratu predoktoralak, garatzea aldarrikatzen du, Zientzia Legean definitutakoak, eta **berariazko kontratuak** egitea formazioko ikertzaileentzako arazoak betiko konpontzeko. Atzera eragina ez zela legezkoa nahiko argi badago ere azkeneko kontratuak praktiketakoak izan dira eta, beraz, aldatu beharko lirateke. **LABek exijitzen dio UPV/EHUri aldaketa hauek ahalik eta lasterren egitea** eta dagoeneko irakasle-ikertzaileen errektoreordeari eskatu zaio. Bestalde, **Eusko Jaurlaritzak irakasle-ikertzaileen dekretua eguneratu beharko luke, beste gauzen artean, irudi hau EAEn garatzeko.**